

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea Aguraingo eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen zerga ordenantzari**

Udalbatzak, 2021eko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Aguraingo eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen zerga ordenantzari, eta, hala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan xedatutakoa betez, jendurrean jartzen da espedientea hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera izan dadin hura aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkezteko. Epe hori igarota ez bada alegaziorik aurkeztu, behin betiko onetsizat joko da ordenantza, eta testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango da indarrean.

Agurainen, 2021eko martxoaren 29an

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**